

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2022ko abenduak 16 · 1251 zenbakia

GABONAK KOLOREZ JANTZITA

2^{Mo} 229€
erreflexuen aurkako
betaurreko
progresiboak



Bidebarrieta, 2
943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

www.multioplicas.com ●●●



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Dokorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian.
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatus Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikian Diplomatus.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikian Diplomatus.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Dokorea.

Asteheneretik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Jarraitu gaitzazu!



EUSKARAREN EGUNA



EIBAR RUGBY TALDEA 24
CRAT A CORUÑA 19



Hotzari eta euriari aurre eginez, Euskararen Eguna kolorez bete genuen Eibarren. Horma-irudia Bista Eder kalean, umeentzako jolasak Untzagako karpan, kalejira herrikoia Ustekaberekin, talde-argazkia, dantzak, herri bazkaria... Egun borobila izan zen!

Iberdrola Ligan jokatzen duen Eibar Rugby Taldeak bigarren garaipena jarraian lortu du eta jaitsiera postuetatik irten da. Eibartarrek CRAT A Coruña izan zuten arerio eta Cristina Guntinen neskak 24 -19 gailendu zitzairen galiziarrei.

Eibar Rugby Taldeak zapatuan Unben jokatuko du berriz ere eta bigarren postuan dagoen Majadahonda hartuko du, 17:00etan, bolada onari eusteko asmoz.

@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA

943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eibarren ere Osakidetzan arazoak

Orain dela bi aste ezagutu genituen Donostialdeko ESIan lehendabiziko kargugabetzeak. Berehala kargugabetze horiei batu zitzaizkien zerbitzuburu batzuen dimisioak. Azaroaren hasieran berriz, gatazkak Bizkaiko Basurtoko Ospitalea izan zuen eszenatokia, eta horrez gain, Osakidetzan ordezkaritza duten sindikatuek denbora luzea daramate salatzen Osakidetzak ezarri dituen murrizketak, murrizketa ugari eta anitzak. Gure herri ondoan, Elgoibarren, herritarren plataforma batek 5.500 sinadura baino gehiago jaso ditu Osakidetzak Elgoibarren berrezar dezan larrialdi zerbitzua, 24 ordutan asteko zazpi egunetan.

Seguru nago, gutariko gehienok pairatu egin dugula edo lagun bati entzun diogula, ez dakit zeren ebakuntza egiteko hilabeteak itxaron behar izan dituela, edo mediku espezialista batekin zuen hitzordua behin eta berriz atzeratzen ari zaizkiola. Gehienok murrizketaren bat nozitu du eta otzan-otzan onartu egin du, edo gehienez arestian aipatutako komentario batean geratu egin da.

Nik uste dut, aurrera urratsa eman behar dugula, bestela gure osasungintza publikoa poliki-poliki eraitsi egingo dute. Areago, esango nuke, Donostialdean, Basurton, eta gure herrietan gertatzen ari dena elkar loturik daudela, ikusten baitut gertaera hauetan guztietan dagoen ezkurtuko helburua dela Osasun sistema publikoaren argaltze prozesua bultzatzea, sistema pribatuaren mesedean. Ni konkretuki azken 3 urte hauetan 3 aldiz izan naiz herriko anbulatorioan, eta hirutan dermatologoak aurpegian ateratzen zaizkidan orbainak erre egin dizkit. Azken aldia 2021eko ekainean izan zen, eta 2022ko ekainerako hurrengo hitzordua eman zidan. Ekaina, uztaila, abuztua, iraila, urria, azaroa joan dira, eta oraindik zain nago, Eibarren ez dugulako dermatologia zerbitzu publikorik (kendu baitute), baina nire aurpegira orbainak itzuli dira. Eibarren ez dago dermatologorik, Mendaron ere ez. Noiz arte?

Jon Urrusolo Santos

Jarrera iraingarria pleno tristean

Orain dela urtebetetik hona herritar talde bat Udal Batzarretara joan ohi da, beren kezka azaltzeko. Trenbidea estaltzeak kalte handiak ekarriko dizkie familia askori, eta kezkatuta daude. Minutu bakar batez euren lekuan jartzea aski da bizitzen ari diren egoera gogorraz jabetzeko. Gogorra da, eta injustua.

Horregatik, azken plenoa are tristeagoa izan zen: udal gobernua kupidarik gabe tratatu zituen herritarrak. Enpatiarik eta errespeturik gabe, prepotentzia osoz erantzun zien herritar horiei. Hain sumingarria izan zen herritar horiek alde egin zutela. Zinegotzi jeltzaleok ere alde egin genuen, besteen harridura eta haserrea eraginez.

Udal gobernua Udala bera kaltetu zuen. Udal Batzarretan errespetua izan behar da nagusi. Urte asko daramatzat udaletxean, eta aski ezagunak diren indarkeriazko egoerak ere bizi izan ditut. Astelehenean gertatutakoak, nolabait, iraganera eraman gintuen. Irain berbalik ez, baina jarrera erabat iraingarria praktikatu zuen udal gobernua. Beren etxeetan lasai bizi nahi dutenen aurkako eraso bat. Herritarren aurkako eraso. Eta ez: gure udaletxean ezin du horrelako jarrerarik onartu.

Elena Ibañez Anuncibay (EAJ-PNVko udal taldeko zinegotzia eta Urkizuko bizilaguna)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ONENIAN → Akaso, beharbada. “Onenian egixa izango da esan dabena, guzurra esatia ahaztu jakolako”.

Kasurik onenean. “Erremedixo horren ona, onenian, kalterik ez egittia”.

1971-72

Olentzero kalejiran

Plazaolaren argazki honetan ikus daitekeenez, aspaldi hasi zen Olentzero Eibarko kaleetan kalejiran ibiltzeko ohitura. Estaziño kalean hartutako irudi honetan asto eta guzti doa, laguntzaile inguratutik.



Farmaziak

BARIXAKUA 16

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

ZAPATUA 17

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

DOMEKA 18

EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19)

ASTELEHENA 19

EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

MARTITZENA 20

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

EGUAZTENA 21

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

EGUENA 22

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

BARIXAKUA 23

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Alicia Herreria Lombera**. 90 urte. 2022-11-30.
- **Maria Elkoro-iribe Osa**. 86 urte. 2022-12-01.
- **Juanma Molina Madera**. 60 urte. 2022-12-01.
- **Amado Sampedro Fernandez**. 77 urte. 2022-12-02.
- **Josean Alonso Gonzalez**. 57 urte. 2022-12-05.
- **Victoria Bergara Errasti**. 98 urte. 2022-12-05.
- **Luis Fernando Zamakola Ugarteburu**. 77 urte. 2022-12-06.
- **Santiago Gallego Matias**. 89 urte. 2022-12-06.
- **Fernando Gisasola Burrutxaga**. 81 urte. 2022-12-07.
- **Shandra Miranda Hurtado**. 45 urte. 2022-12-08.
- **Constantino Etxebarria Andres**. 92 urte. 2022-12-11.

Jaiotakoak

- **Deisy Juliana Moreno Franco**. 2022-11-16.
- **Zuleima Moutaouakil Galuao**. 2022-11-27.
- **Uxue Zubillaga Uriarte**. 2022-11-28.
- **Eiden Amado Puga**. 2022-11-28.
- **Thiago Saez Afonso**. 2022-11-29.
- **Jon Ormaetxea Lazkano**. 2022-12-02.
- **Mirna Azaoun**. 2022-12-04.
- **Liam Cruz Colon**. 2022-12-05.
- **Arthur Rivera Arteaga**. 2022-12-05.
- **Martin Bolinaga Orbegozo**. 2022-12-08.

“...euskaraz eta kitto!” bandoak 40 urte beteko ditu abenduaren 21ean, San Tomas egunean

1982ko abenduan, orduko Euskaltegiak (Gau Eskola), herriko euskaltzaleek, gizarte-eragileek eta Eibarko Udalak osatutako batzorde misto batek euskararen aldeko sentsibilizazio-kanpaina zabal bat antolatu zuen, eta horren barruan argitaratu zen Bandoa. Kanpainaren helburu nagusia zen euskaldunak, euskal hiztunak, hizkuntza erabiltzera bultzatzea, eta euskararen erabilera soziala herriko arlo guztietan sustatzea: prentsan eta irradian, dendetan, tabernetan eta jatetxeetan, irakaskuntza-zentroetan, tailerretan, sozietateetan eta elkarteetan.

Horretarako, sektore bakoitzerako propio eratutako lan-taldeak egin ziren arlo bakoitzari zuzendutako hainbat hizkuntza-proiektu jorratu eta garatzeko, betiere helburu nagusi batekin: hizkuntza ikusaraztea eta kalera “ateratzea”; azken batean, jendea euskararen existentziaz kontzientziaztea. Hilabete hartan egin ziren beste jarduera askoren artean, Eibarko eskoletan euskarazko 1.200 liburu eta ipuin banatu ziren Diptazioak emandakoak, 11.000 itsasgarri jarri ziren euskarazko makinaren izenekin tailerretan...

Horrez gain, abenduan, hizkuntzaren eta kulturaren arteko lotura azpimarratu nahian, Jon Mirande idazlea omendu zen, eta bertan parte hartu zuten, besteak beste, Txomin Peillen, Bernardo Atxaga, Alfontso Irigoien, Kazenave, San Martin, Krutwig eta Kintana euskal idazleek hiru mahai-ingurutan, non idazlearen nortasuna, haren ideologia —jarrera filonazia, euskal autoreek biziki gaitzetsia— eta literatura-ibilbide oparo bezain berritzailea aztertu baitziren.

Joan den mendeko 80ko hamarkadaren hasierako testuinguru hartan kokatu behar da Mikel Larrañaga alkatearen “...euskaraz eta kitto!” bandoa, 1982ko abenduaren 21ean argitaratu eta euskaldunak euskara



Bandoa 1982ko euskararen aldeko sentsibilizazio-kanpaina arrakastatsu batean egin ziren hainbat ekitaldiren parte zen.

erabiltzera behartu nahi zituen, ikasten ari zirenek ikasgeletatik kanpo praktikatzeko aukera izan zezaten. Inpaktua lortu nahi zen mezua hedatzeko eta, horretarako, Udalak Bilboko Paradox enpresa sortu berriari diseinu deigarri eta berezi bat egitea eskatu zion, irakurri ahala gero eta ozenagoa izan nahi zuen idazkia.

Idea hori zabaltzearen bidali zen Euskadiko udalerri gehienetara agiria, eta oihartzun handia izan zuen gizartean eta komunikabideetan. Bandoaren mezuak eta diseinuak jende gehienaren harrera ona jaso zuen eta Eibarko Alkatezara hainbat zorion-telegrama iritsi ziren, beste askoren artean Donostiako alkatea izan zen Ramon Labaien Sansinenearena, “euskarari buruzko Bandoa dela eta, har itzazu nire zorionik beroenak” zioena.



Bi langile zauritu dira El Casco etxeak egiteko obran

El Casco lantegia egon zen tokian etxeak eraikitzeko beharrez zeuden bi lagun zauritu ziren martitzen. Ezbeharrak eguerdian gertatu zen eta Udaltzaingoak 12:30ean jaso zuen deia: “Hormigoia botatzeko ari zirenean, plaka bat erori egin da beheko solairuan lanean zeuden bi langileren gainean. Horietako bat larriki zaurituta eraman dute Donostiako ospitalera

eta bestea Mendaroko ospitalera, zauri arinekin”.

LAB sindikatuak gertatutakoaren harira egindako adierazpenen arabera, “ez da lehen aldia obra horietan istripu larri bat gertatzen dena. Hondeamakina eraiste-lanean ari zela irauli egin zen, nahiz eta gertakari honetan zorionez langilea onik atera. Eta tamalez, hau ez da aparteko egoera eraikuntzaren

sektorean. Datuak hor daude, eta aurten iazko istripu-tasak gainditu ditugu”. Sindikatuko ordezkariak salatu dutenez, “obra honetan eta, oro har, sektore honetan, ez dira behar bezala bermatzen laneko segurtasunari buruzko neurriak. Izan ere, denbora eta prezioek langileklasearen segurtasunaren eta osasunaren gainetik agintzen dute”.


Sindikatuak elkartasun osoa adierazi nahi diete zauritutako langileei eta haien senideei, “eta hau guztia salatu eta mobilizatzeko dei egiten dugu, laneko osasun- eta bizi-galerei eman beharreko erantzun gisa”.

Azitain-Maltzaga bidegorria, Europa mailako kudeaketaren eredu

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak bere urteroko aintzatespenetan sartu du Azitain-Maltzaga oinezkoentzako eta bizikletentzako bidearen Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren kudeaketako “EAEko 2014-2020 EGEF Programa Operatiboaren” jardunbide egokia, iritzia baitu EGEFen Komunikazio Planen Jarraipenerako

eta Ebaluaziorako Gidan, Kohesio Funtsean eta EGIF 2007-2013an jasotako irizpideak betetzeagatik nabarmentzen dela.

Rafaela Romero Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuaren esanetan, “aintzatespen horrek berretsi egiten gaitu Departamentuak oinezkoen eta bizikleten mugikortasunean egiten dituen ahaleginetan”.





Matsariaiko behealdean sare elektrikoa aldatzeko lanean hasi dira

Matsaria kalearen beheko aldean, Ibergaineko bidegurutzeraino doan zatian, argindarraren sarea aldatzeko lanak hasi dira aste honetan eta, horren eraginez, inguru horretako aparkaleku batzuk kendu dituzte. Udaletik jakinarazi dutenez, lanak zatika egingo dira, ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko.

Obrak Estaziño eta Matsaria lotzen dituen trenaren gaineko pasarela handitzeko planaren barruan sartzen dira, geltokia eta Azitain

arteko trenbidearen gaineko oinezkoentzako pasealekua eraikitzeko lehen lanen barruan. Azaldu dutenez, “pasarela horrek energia elektrikoaren kanalizazio bat du erantsita, Ibergain eta Bittor Sarasketa kaleetan dauden transformadoreen konexioaren parte dena. Helburua da sare hori hobetzea eta trazatu berri bat ematea, zeina Ibergain kalearen behealdetik, Matsariaren behealdetik eta Bittor Sarasketaren goialdetik joango den”.

Legarreko aparkaleku-gune berria zabaldu dute, 56 plazarekin

Obrak amaitu ondoren, 30 aparkaleku gehiago daude orain Legarre auzoan (lehen 26 zeuden), guztira 56 plaza dituen aparkaleku-gunean, saihebidetik Legarre auzora sartzeko bidean. Aurreantzean, beraz, lerroan eta baterian aparkatzeko aukera egongo da (behar bezala seinaleztatuta dago) eta, horrez gain, espaloiak eraiki dira, asfaltatu egin da eta seinaleak eta argiak jarri dira. Horretarako, 640.259 euro bideratu ditu Udalak. Horrela, auzoan aparkatzeko zegoen arazoa arindu egin da, neurri batean.



Ipuruako jubilatuek txistorra-janarekin ospatuko dute Santo Tomas eguna

Urtea amaitu baino lehen, Ipuruako jubilatuek txistorra-janarekin jarduera antolatu dituzte datozen egunotarako: bihar eta etzi, 17:00etatik aurrera, aurtengo azken kina partidetan aritzeko aukera egongo da eta, gainera, Gabonetako loteak zozketatuko dituzte (urtarrilaren 7an eta 8an itzuliko dira kinarekin). Astelehenean, berriz, “La soledad no deseada” hitzaldia emango dute,

17:00etatik 18:30era. Eta abenduaren 21ean, Santo Tomas eguna ospatzeko, txistorra jana egingo dute 18:30ean hasita. Bestalde, norbaitek Ipuruako jubiletzeko taberna hartzeko interesa izanago balu, zuzendaritzako kideekin harremanetan jar daiteke, 696064396 telefono zenbakira deituta edo, bestela, bertako bulegora joanda (asteleheneetik eguaztena, 16:30etik 18:30era).



Urrezko Bikain ziurtagiria jaso du Udalak, euskararen erabilera neurtu eta gero

Erakundearen euskarak duen presentzia, erabilera eta kudeaketa ebaluatzen duen urrezko Bikain ziurtagiria eskuratu du Eibarko Udalak. Ziurtagiria lortzeko kanpo-ebaluaketara aurkeztu den bigarren aldia izan da, aurretik ere, 2015ean aurkeztu baitzen. Orduan zilarreko Bikain ziurtagiria lortu zuen Udalak. Guztira 1.000 puntu daude jokoan eta urrezko bikain ziurtagiria lortzeko 800 puntuko langa gainditu behar da. Eibarko Udalak 800-849 puntu artean lortu ditu eta jasotako emaitzaren oso balorazio positiboa egiten du, bereziki hautetsi eta langileek urte hauetan guztietan egindako lana eta jarritako ilusioagatik.



Mertxe Aizpuruarekin solasaldia bihar Errebalen

Eibarko EH Bilduk, Abante! dinamikaren baitan, Mertxe Aizpuruarekin solasaldia antolatu du bihar, 12:30ean Errebal Plazan (bilera aretoan).

Eibar eta Soralezko lurretan 1.000 zuhaitz landatuta agurtuko du urtea Baso Biziak-ek

Eibarko Baso Biziak taldekoek, Soralezkoekin eta Lurgaiarekin batera, zuhaitz landaketa egin zuten abenduaren 3an, Eibarko lurretan dagoen Illordo eta Topinburu arteko hiru hektareako lursail batean. "Nahiz eta eguraldi makurra espero genuen, landaketa garaian euriak beste alde batera begiratu zuen eta samurrago sartu ahal izan genituen 400 landare. Gure Baso Bizien filosofiari jarraituz hainbat espezie aldatu genituen, hala nola haritza, elorri zuria, elorri beltza, makatza, sagarrondoa, urkia, hostozuria...


inoiz ez lerrokatuta, baizik eta Naturan berez aurkitu daitekeen baso baten irizpideei jarraituz; honekin esan nahi dugu hemendik hamar urtera, demagun, ezezagun bat inguru horretan pasatuko balitz ez lukeela antzeman behar landaketa batean dagoela".

Ekimen hau urriaren 23an Soralezko lurretan egindakoaren jarraipena da: egun hartan 100 lagunen artean 625 zuhaitz landatu zituzten. Adierazi dutenez, "beraz, 2022a mila zuhaitz ingururekin joango da, ez da marka makala!".

Ailegatu berriek gaztelania ikasteko klaseak Portalean

Udaleko Kultur Aniztasun eta Immigrazio atalak gune bat jarri du abian, atzerritar jatorridun pertsona ailegatu berriek gaztelania ikasteko eta, oro har, gizarteratze prozesuan gaitzeko. Informazio gehiagorako, 943 708 440 telefonora deitu edo emplabramiento.eibar@gmail.com helbidera idatzi.





Juan Jose Altuna Iturzaeta "Gomazko Gizona", Irureta II.a (Felix Irureta), Egia (Alberto Egia) eta Ignazio Kortabitarte pilotariak, Eibarko udal pilotalekuan. Frontoi Zaharra izandakoa 1997ko uztailean eraitsi zen, Txaltxa Zelai berritzeko lanengatik.
INDALECIO OJANGUREN

Eibarko frontoi zaharreen palaz eta zestaz egiten zen; Astelenan eskuz eta lantzean behin paletaz.

Eibarko frontoiak

Imanol Ortiz de Zarate Arrinda
(1921 – 2010)



Aita eta ama Abadiñoakoak ziren, baina aitak Eibarren egiten zuen lan. Imanolek 7 urte zituenean familia osoa Eibarrera etorri zen bizi izatera, Errebal kalera. Gaztetan boxeoa egin zuen eta Eibartik kanpo hainbat plazatan erakutsi zuen bere gaitasuna. Gerra sasoiaren gudariekin batera borrokatu zuen fronte desberdinetan. Pelotazale amorratua.

Imanol Ortiz de Zarateri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Eibarren jokatzeko zantza, zestaz edo palaz edo?] Ez. Eibarren, frontoi zaharrian bai, zestaz ta palaz, frontoi zaharrian, han, viejo frontón, han goiko munizipalian. Baiña bestian ez. Paletas edo bai, honek, paletas edo. Honek, Juanito Txoko ta haiek ta, paleta. Paleta goma, eh! Beste frontoian palia ta ez dabe admitidu porque eskurako eginda dagozela ta, frontoian palazuak ba fuertiaguak dire ta. Bestian bai, frontoi zaharrian bai. Ha zelán da munizipala, ta gero harrizko zera dauko, pareta. Ta honek eurak egindakuak, partikularrak ta. Eskurako eginda, ta horregaittik ez dau admititzen Vidartek hor palaz edo zestaz edo, porque pelotak eta, biolenzia diferentia dake, osea que... [Baiña frontoi zaharrian bai, zuk ikusi dozu?] Bai, frontoi zaharrian bai, palaz eta zestaz ta. Han pelotarixak urten due handik, Eibarko pelotarixak, ta raketaz be egin dabe han.

DIRULAGUNTZAK

“Dirulaguntzak aurrezten den energia kopuruaren arabera emango dira”

Birgaitze-bulegoak etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko eta etxebizitzetan energia-eraginkortasuna hobetzeko laguntzak bideratuko ditu.

Nolako dirulaguntzak dira?

Europar Batasunak emandako NEXT Generation dirulaguntzak dira eta, kasu honetan, etxebizitzetan energia-eraginkortasuna hobetzea helburu duten jarduketak edo obrak finantzatzeko eta etxebizitza-eraikinak birgaitzeko jarduketak eta proiektuak finantzatzeko balio izango dute. Zentzu horretan, Debegesatik, Debarbarreneko Birgaitzeko Hirigintza Elkarteak garenaz eta Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena dugunez, laguntza hauen inguruko informazioa eman eta laguntzak bideratuko ditugu.

Nolako baldintzak dituzte dirulaguntza horiek?

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira eta energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduketak egiteko erabili behar dira beti. Gainera, obrei esker zenbat aurrezten den justifikatu behar da Energia Eraginkortasunaren Ziurtagiriaren bitartez. Izan ere, dirulaguntzak aurrezten den energia kontsumo kopuruaren arabera emango dira.

Zer dira, zehazki, energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduketak?

Adibidez, eraikinaren inguratzailean egiten diren hobekuntzak. Hau da, fatxadetan eta estalkietan egiten diren lanak. Kasu horretan, obrak dira fatxada margotzea soilik mugatzen, lehen egiten zen bezala. Isolamendu-lanak egiten dira, eraikinari beroki moduko bat ipiniz eta, horrela, eraginkorragoa da energetikoki, energia gutxiago galtzen duelako. Etxebizitzetara dagokienez, bestetik, leihoen aldaketa izan daiteke jarduketa bat, adibidez.



Dagoeneko badago dirulaguntza hauek eskatzeko aukera.

Zenbateko dirulaguntzak jaso ditzakete eskakizuna egiten dutenek?

Dirulaguntzaren zenbatekoa gehieneko ehunekoaren eta gehieneko zenbatekoaren arteko txikitutasunaren arabera kalkulatu da. Gainera, egoera ekonomiko ahulean dauden pertsonak laguntza osagarriak jaso ahal izango dituzte.

Noiz eta nola eskatu ahal izango dira dirulaguntza horiek?

Dagoeneko eskatu daitezke. Etxebizitza-komunitate batek edo partikular batek informazioa behar badu, Debegesara deitu dezake (943 82 01 10) eta Igorrengatik galdetu zita hartzeko. Gainera, debegesa.eus webgunearen bitartez zita hartzeko aukera eskainiko dugu laster. Horrez gain, etxebizitza-komunitateentzat eta herritarrentzat fitxa batzuk sortu ditugu dirulaguntzen inguruko informazio zehatz eta argiarekin. Horiek ere Debegesako webgunean eskegita aurkitu ahal dira laster.

Olentzerori opariekin laguntzeko ordua

Olentzero opariak banatzen hasteko egun gutxi falta dira, baina herriko kaleetan Gabon usaina zabaltzen hasi da. Herriko kaleak jaietarako girotzeko asmoz ipintzen diren argiek, hamaika argazki egiteko aitzakia ematen duen sei metro luze dituen Errebalgo arbola, dendetako erakusleihoak apainduta... egutegiak baino, horiek esaten digute egun gutxi barru ospatzen hasiko garen jaiak hemen direla.

San Andres bezperan kaleak apaintzeko ipini diren argiak piztearekin batera ekin zioten Gabonetako kanpainari Eibarko Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI), Errebal Plazan dagoen arbolaren inguruan.

Gure herriko merkataritza eta ostalaritza bultzatzeko asmoz antolatu duten Gabonetako programarako 120.000 eurotik gora erabiliko dute aurten. Kopuru horretatik 64.900 euro Gabonetako argiak ordaintzera bideratuko dituzte: 46.000 euro Eibarko Udalak ordainduko ditu eta gainontzekoa, berriz, Eusko Jaurlaritzak eta EMGI elkarteko bazkideek. Inbertsioa garrantzitsua da, zantzara barik; baina, merkataritzan zein ostalaritzan urte osoan gastatzen dugunari begiratu gero, urte sasoi honetako gure kontsumoak daukan pisua ere oso handia dela jakin badakite. Hori dela eta, Gabonetarako prestatu duten pro-



gramazioak ahalegin berezia eskatu arren, emaitza ona izatea eta, beraz, antolatu dituzten jardueri esker, herrian egindako salmentak hobetzea espero dute. Bezeroentzat eskaera edo mezua ere argia da: “Amazon eta beste plataforma handi batzuk hedatzearekin batera, geroz eta gehiago erosten dugu Internet bitartez. Tokian tokiko merkatariarentzat oso zaila, ia ezinezkoa, da horrelakoei aurre egitea, baina guk herritarrak Eibarren erostera animatu nahi ditugu eta, horretarako, Gabonetarako antolatu ditugun jardueraz gain, Eibarren erosteagatik abantailak eskainiko ditugu”.

Gabonetako parkea, izotz-pista eta barrakak

Azken bi urteotako murrizketak atzean lagata, aurten berriz ere ohiko jarduerak egingo dira: besteak beste, Astelena frontoiko txiki-parka, Errebal Plazan ipiniko den izotz-pista eta barrakak egongo dira. Abenduaren 26an zabalduko ditu ateak Gabonetako parkeak Astelenan eta, harrera oso ona izaten duenez, jarduera martxoaren 4ra arte luzatuko da. Eta egun berean ipiniko da martxan patinatzeko izotz-pista, Errebal Plazan, urtarrilaren 8ra arte. Bestalde, abenduaren 23tik aurrera, Txaltxa Zelaian eta Urkizuko parkean barrakak egongo dira martxan, urtarrilaren 8ra arte, eta hilaren hasieraz geroztik anbulatorio pareko parkean dagoen karrusela otsailaren amaiera aldera arte egongo da martxan.

Aipatutako guztietan ibili ahal izateko txartelak herriko denda



Abenduaren 26an zabalduko dituzte Astelena Gabonetako Haur Parkea eta patinatzeko izotz-pista, Errebalen. Horrez gain, barrakak ipiniko dituzte Urkizun eta Txaltxa Zelaian.

>>> Haurrendako jarduerak antolatuta eta bezeroei eskaintza bereziak eginda, jendea Eibarren erostera animatu nahi dute

eta tabernetan banatuko dituzte, 20 euroko gastua egiten duten bezeroen artean. Bonuei esker, kasu batzuetan ez da sarrerarik ordainduko eta beste batzuetan sarrera merkeagoa izango da.

Eibar Oparitu txartela

Egunotako erosketak Eibarren egitera animatzeko, “Eibar Oparitu” txartela jarriko dute martxan: txartel horri esker, kanpainarekin bat egiten duten establezimenduetan



Gaurtik hasita eta jaiak igaro arte, Untzagan egongo da Eibarko artisauen elkarteak antolatutako azoka. Artisauek egindako ohiko gauzekin batera, jateko hainbat gauza ere salduko dituzte oraingoan.

>>> Beste herri batzuetan bezala, erabilitako gauzak saldu eta erosteko ohitura geroz eta gehiago hedatzen ari da gure artean ere

erosi ahal izango da, sustapen bereziekin. Kanpainaren aurkezpena egin zutenean azaldutakoaren arabera, txartel hori Eibarko enpresen artean sustatu dute, Gabonetan langileei opari gisa emateko, eta ekimenak oso harrera ona izan du. Hori ikusita, orain herritarren eskura ere jarriko dute, www.erosiei-barren.eus web orriaren bitartez.

Gabonetarako azoka bereziak

Eibarko merkataritzari laguntzeko asmoz antolatu den programaziotik kanpora ere, kontsumorako beste modu batzuk indartzeko ekimenak antolatu dira Eibarren eta, besteak beste, bihar Gabonetako Bigarren Eskuko Azoka egingo da Errebalen, 10:00etatik 14:00etara, Udalak antolatuta. Antolatzailen berbetan, “objektuek bigarren bizi bat izan dezaketela eta beste pertsona batzuek berrerabil ditzaketela” kontzientziazteko helburua

du ekimenak eta, azokaz gailan, haurrentzako bi tailer eskainiko dira, material birziklatuekin Gabonetako apaingarriak sortzeko. Tailerrak 11:30ean hasi eta 14:00etan amaituko dira eta 25 minutuko iraupena izango dute. Plazak mugatuak direnez, bost txanda egongo dira aukeran, 11:30etik 13:30era arte (bihar bertan erreserbatuko da txanda, Errebalen).

Truke eta doako azoka Untzagan

Nalua Eibarko talde feministak aurten ere truke eta doako azoka antolatu du biharko, Untzagan, 10:00etatik 14:30era. Diotenez, “garai honetako kontsumismo baxiaren inguruko hausnarketa zabaldu nahi dugu eta, nola ez, horri aurre egiteko alternatiba proposatu. Eskatu, erosi, xahutu, kontsumitu... besterik ez dago Gabon jaietan! Klick bateko erosketak, etxerainoko bidalketak...

kontsumoa erraztu eta azkartuz doa, langileen eta ingurumenaren esplotazioaz baliatuta. Bigarren eskukoa erostea modan jarri da azken urteotan hainbat plataformaren laguntzarekin (Vinted, Wallapop...), baina salerosketarako eredu horrek kontsumismoa are gehiago erraztu du: pentsatu gabe behar ez duguna erosi, erabili ez eta saldu, behar ez ditugun produktu gehiago erosi ahal izateko”.

Eibart artisau azoka

Bestalde, gaur goizean zabaldu dute Untzagan Eibart Gabonetako 18. Artisau Azoka. Eibart Eibarko artisauek antolatutako azokan Hartara, Kilikilima, Eskune, Zugehina, La Zahera, Eskusutxo eta Eskulan egongo dira, artisautza produktuak eskaintzen, eta Lizagasar, Galletiak, Egotza eta Maison Dufrexe-k, berriz, jateko gauzekin. Azoka goizez (11:00etatik 14:00etara) eta arratsaldez (17:00etatik 20:30era) zabalduko dute. Oraingo honetan, berrietasun gisa, Armeria Eskolako grabatu eta damaskinatu tailerraren stand bat egongo da, urtarrilaren 2tik 5era, eta bertan erakustaldiak egingo dituzte, otsailean hasiko den ikastaroari buruzko informazioa emateaz gain.

Artisau azoka Ipuruako Merkaturan
Eta Ipuruako Merkatu Plazan ere artisau azoka antolatu dute astebururako. Orain dela gutxi egindakoaren bidetik, Eibar eta inguruko hainbat artisauek hartuko dute parte. Zapatuan eta domekan za-



Gabonetako Bigarren Eskuko Azoka edo Truke eta Doako Azoka antolatuta, kontsumitzeko modu eta aukera ezberdinak daudela erakutsi nahi diote jendeari. MAITANE CAMPOS

balduko dute azoka, egun bietan 10:30etik 15:00era.

Gurutze Gorriaren tonbola

Eta Eibar-Ermuko Gazteen Gurutze Gorriak Tonbola Solidarioa antolatu du asteburu honetarako, “kalteberatasun-egoeran dauden ahalik eta haur gehienengana iritsi ahal izateko”. Gaur hasi eta do-

meka bitartean Untzagan egongo dira eta lortutako irabaziak Gurutze Gorriko gazte atalak egiten dituen proiektuetarako izango dira. Zozketatuko diren sariak, berriz, inguruko enpresek eta elkarteek egindako dohaintzak izan dira. Tonbola solidarioan parte hartu nahi dutenek euro baten truke eraman dezakete sariren bat.



Sahararen aldeko mugimenduak gure laguntza behar du



Eibar-Sahara elkarteak 12 urte daramatza saharar herriaren alde egiten. Hainbatetan eraman dituzte hemendik jasotako elikagaiak eta materialak Saharako errefuxiatuak dauden kanpamenduetara, hamarnaka ume etorri dira udan hemengo familiekin egotera eta, momentu batez bada ere, errefuxiatuen zelaiko bizi baldintza gogorak albo batera lagatzera. Eta, garrantzitsua dena, saharar herriaren borrokaren kontzientzia zabaldu dute gure artean.

Urteak aurrera joan ahala, eta pandemia tarteko, Eibar-Sahara elkartearen parte hartzen zuen jende kopurua jaisten joan da eta gaur egun bi lagun besterik ez dabilta elkarteak egiten dituen ekintza guztiak antolatzen eta kudeatzen. “Badaude laguntza puntuala ematen diguten pertsonak ere, baina orokorrean bi lagun bakarrik gabiltza”, esan digu Edurne Uzkudun Eibar-Sahara elkarte bultzatzaileak. “Edozein laguntza asko eskertzen dugu, baina azkenean gauza asko ditugu egiteko eta ez gara denera iristen. Ez bada gazte jendea sartzen, elkarte itxi egin beharko dugu, guk biok ezin dugulako honekin guztiarekin”.

Elkarteak urte oparagoak bizi izan ditu antolakuntza mailan eta, lehen, jende gehiago zegoenez, lanak banatzen zituzten. “Batzuek pardelak jasotzen zituzten farmazietan, beste batzuek janari bilketaren antolaketa eta jasoketa egiten zuten, batzuk liburu azoka antolatzen genuen, udan umeak etortzeko izapideak betetzeaz arduratzen ziren beste batzuk... Baina jendea jubilatzen joan da, beste bizimodu bat egiten, batzuk joan egin zaizkigu, eta gauden bezala gelditu gara”, diosku Uzkudunek.

Urte osoko lana

Urte osoan etengabe lan egiten duen elkarte da Eibar-Sahara. “Urte gutxian zehar umeentzako pardelak jasotzen ditugu herriko farmazietan. Urtarrilean janari-bilketa hasten dugu, otsailean sahararren errefuxiatu kanpamenduetara bidaltzeko. Eibarko, Elgoibarko, Mendaroko eta Debako dendetan egiten da bilketa. Deban, adibidez, gaztelekuko gazteek laguntzen digute eta Mendaron bi denda daude eta, oso ondo antolatuta daudenez, eurek egiten dute dena. Eibarren eta Elgoibarren, oster, as-

tean behin edo birritan joan behar izaten gara karroak hustera, eta zapatuetan lokalean egoten gara jasotako guztia kaxetan antolatzeko. Gero, otsailetik aurrera, udan Saharako umeak jasotzeko familiak topatzen hasten gara”, azaldu digu Uzkudunek.

Familiak aurkitzea ez da lan erraza izaten. “Telefonoa beti eduki behar dugu libre, familiei denbora asko eskaini behar diegu guztia esplikatzen, elkarrizketak egin behar dira...”, Uzkudunen berbetan.

Liburu-azoka

Eibar-Sahara elkartearen beste ekintza garrantzitsua bat gaur hasi eta domekan amaituko den bigarren eskuko liburu azoka izango da. Bertan, liburuak euro baten, 3 eurotan eta 5 eurotan aurkitu ahal izango dituz jendeak, eta domekan liburu guztiak euro batengatik erosi ahal izango dira. Gainera, elkarteak 2023. urteko egutegia sortu du eta 7 eurogatik egongo da salgai. Orduetegiari dagokionez, azoka 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik gaur, 11:30etik 20:00etara zapatuan eta 11:30etik 14:30era domekan.


Aurten Eibarko gaztetxeko kideen laguntza jaso dute azoka prestatzeko orduan eta Uzkudunek asko baloratzen du euren inplikazioa. Izan ere, elkartearen jende gaztea sartzea gustatuko litzaioke, erreleboa egon dadin. “Honetan hasi ginenean, errefuxiatuen kanpamentuetara joan ginen eta hango errealitatea ezagutu genuen. Orain, Eibarko gazteek hori ezagutzea gustatuko litzaiguke eta gure asmoa da ateratzen dugun diruarekin gazte batzuei bidaia ordaintzea hant gertatzen dena ikusteko, gero horren alde lanean hasi daitezten”, diosku Uzkudunek.

Saharako egoera okerrera

Saharan gertatzen den guztia ikusita, gatazkak jarraitu egingo duela dirudi eta Eibar-Sahara bezalako elkartearen lana berebizikoa izango da sahararrek laguntza jaso dezaten. Besteak beste, Espainiako Gobernuak Marokoren aldeko jarrera ofiziala hartu zuen orain dela hilabete batzuk eta horrek eragina izan du kooperanteen lanean. “Muga asko itxi egin ziren, Espainiak ez du ezer egin muga horiek zabaltzeko, kooperante bezala gu joateko eta kamioiak bidaltzeko”, azaldu digu Uzkudunek.



Eibar-Sahara elkarteak bigarren eskuko liburu azoka jarriko du gaurtik domekara arte Untzagan



Eibar-Sahara elkarteak sortutako egutegiak egongo dira salgai liburu-azokan.

“Immigrazioak etorkizuneko errealitatea izaten jarraituko du”

XABIER AIERDI • Soziologoa



Eibarko Udaleko Gizartekintza saileko immigrazioaren arloak zurrumurruek aurkako prestakuntza saioak prestatu ditu datozen hilabeteetarako. Horrela, astelehenean Xabier Aierdi soziologoa ‘Migrazio prozesuak: zurrumurruek, pertzepzioak eta jarrerak’ izeneko hitzaldia eskainiko du 18:00etan Portalean; eta urtarrilaren 16an eta otsailaren 13an Amelia Barquinek eta Asier Gallastegik saio bana eskainiko dute, hurrenez hurren.

Migratzaileen Nazioarteko Eguna da gaur, abenduak 16, eta migratzaileen eta migrazio-prozesuen inguruan asko daki Xabier Aierdi soziologoa. Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiaren sortzailea eta zuzendaria izan zen, 2003an sortu zenetik 2011ra arte, eta Begirune Fundazioko presidentea da gaur egun.

Zertaz jardungo duzu asteleheneko hitzaldian?

Hitzaldia bi zatitan banatuko dut. Lehenengo eta behin, immigrazioa bertako errealitate estruktural moduan aurkezten dut. Izan ere, immigrazioa dugu eta immigrazioa edukitzen izango dugu, etorkizuneko errealitatea izaten jarraituko duelako. Errealitate horretarako egokitu behar gara. Premia batzuk ditugu, premia horiek ezin ditugu beste era batera konpondu eta immigrazioaren bitartez emango diegu irtenbidea. Horrek guztiak erronka handi baten aurrean jartzen gaitu eta, immigrazioa gustatu ala ez, bertan izango dugu eta bizikidetzarako forma egokiak bilatu behar ditugu modurik adeitsuenean eta emankorrean.

Eta bigarren zatian zer aipatuko duzu?

Zurrumurruek eta estereotipoen garrantziaz jardungo dut, horiei nola egiten zaien aurre azaltzeko. Hori egiten dut aurreiritzien eta estereotipoen aurka egitea oso zaila dela ikusteko. Izan ere, jendeak gehiago jarraitzen ditu bere sinesmenak errealitateko datuak baino.

Esan duzun bezala, immigrazioa estrukturala denez eta etorkizunean jarraituko duenez, zurrumurruek ugariagoak dira edo gehiago elkarrezagutzeagatik murriztu egin dira?


Zurrumurruek hor irauten dute, ez dira aldatu ere egiten. Zurrumurruek materia beti izaten da nahiko antzekoa. Ezin dugu pentsatu jende gehiago etorri arren, automatikoki ikuspegia aldatzen denik. Hemen esaten diren gauzak munduko beste toki batean esaten diren antzekoak dira. Mundu guztian metafora batek funtzionatzen du: “Hemen egon gara bertakook bazkari bat sortzen, eta halako batean agertu dira gonbidatu batzuk esaten dutenak eurak ere gose direla eta parte hartu nahi dutela”. Immigrazioa Troiako Zaldi bezala ikusten da, zuk landu duzuna hustutzerara datorren hori bezala.

Zaila bada ere, nola egin diezaiekegu aurre zurrumurruru eta aurreiritziei? Gutxienez, nondik hasi beharko ginateke?

Nire asmoa oso xumea izaten da. Zurrumurruen aurkako estrategiak ez dauka kutsu oso ideologikoa. Gehiago hurbiltzen gara pertsona batengana errealitate batzuk erakutsiz eta errealitate horien aurrean aldeko apustua egin dezatela da asmoa. Jendearengana xume joan behar zara ideia simple batekin: “Zein abantaila ateratzen duzu txarto hitz egitetik?”, “zergatik tratatzen duzu jendea txarto?”, “zergatik diskriminatzen dituzu?”. Kontua da jende batengan horrelako mekanismoak ezartzea, euren inguruan modurik eraginkorrenean joka dezaten. Askotan garrantzitsuena ez da datu asko edukitzea (immigrazioaren errealitatea ondo ezagutzen baduzu, hobe, noski), jendeak sinemenak jarraitzen dituelako. Zaila da sinemeni datuekin aurre egitea, plano ezberdinetan daudelako. Dena dela, jende batek immigrazioaz txarto pentsatu arren, bere jokabidea ez da txarra izaten immigranteekiko. Hau da, immigrazioaren aurkako oso diskurtso negargarriak izan ditzakezu, baina gero portaera arrunta. Gure lana da jendea ez dadila pasatu diskurtso txarretatik jokabide txarretara. Inpunitatea kontrolatu eta murriztu nahi dugu.

Gaur egun egoera ezegonkorra bizi dugu. Jokabide txarretara pasatzeko arrisku gehiago dago?

Bai. Noraeza dago, ezegonkortasuna, beldurra, jendeak ez du segurtasunik... Badago jende bat, kopuru txikia bada ere, immigrazioaren etorrerarekin kaltetua irteten dena. Horrelako egoeretan tentu handiz ibili behar gara, jendea oso ondo tratatu behar da, entzun egin behar zaie eta ez lezio moralak eman. Izan ere, entzuten badiezu, ikusten duzuna da beldur edo izu soziala dutela: “Etxekoa izanda, nork babestuko nau?”. Trump, Le Pen eta horrelakoak babesten dituztenen atzean iritzi hori dago. Egoera txarra pairatzen duen jendea da, kaltetua izan direla ikusten dutenak eta ez dakitenak egoerari nola aurre egin. Orduan, xenofobia ateratzen zaie defentsa-mekanismo moduan. Jende horri segurtasuna eta laguntasuna eman behar diozu. Bizikidetzat lortu behar dugu eta euren eta immigranteen egoerak ehundu behar dira, zeharkako solidaritatea bultzatuz. Hori bai, badakit guk egin nahi duguna



ezinezko ekimena dela, jendearen antropologia aldatu nahi dugulako.

Zer esan nahi duzu horrekin?

Guk pentsatzen dugu (eta gezurra da) egon daitekeela mundu bat non aurreiritziak ez dauden, baina aurreiritzi gabe jendea ezin izango litzateke bizi. Jendeak mundua sinplifikatzeko beharra du, ezin dugu denetik jakin. Ondo ezagutzen ez ditugun arloetan hainbat estereotipo eta zurrumuru zabaltzen ditugu. Gizakiak errealitatea sinplifikatu behar du, mundua bere erara ulertu, eta horretarako estereotipoak behar ditu. Arzoa da estereotipo batzuk diskriminazioak eragiteko erabiltzen direla eta hor egon behar dugu adi.

Zein herrialde edo herriren eredia jarraitzea komeni zaigu?

Azken 20 urteotan, Espainia osoa eta baita Eibar ere ez dira eredu txarrak izan. Azken finean, Vox alderdia



“Jendeak gehiago jarraitzen ditu bere sinemenak errealitateko datuak baino”

“Gizakiak errealitatea sinplifikatu behar du, mundua bere erara ulertu, eta horretarako estereotipoak behar ditu”

ez da agertzen immigrazioaren aurka egiteko, Kataluniako proces-aren ondorioz baizik, “Vivaspaña” baten izenean. Hori bai, horregatik sortu eta gero bere programa guztia aplikatzen du eta, nolabait esateko, hondartza kakaztuta lagatzen du. Hemen nahiko lasaia izan da gizarteratzea. Immigranteak egoera pobregoan gizarteratu dira, prekarioagoan, bizi-baldintza txarragoetan, lanbide txarragoetan... baina hori immigrazio klasikoa da. Normalean, immigranteak egoera zail batetik hasten dira eta gero joaten dira gorantz. Eibarren 50 urte inguru daramatza prozesu horrek, lehenengo magrebtarrak instalatu zirenetik, baina orokorrean esan dezakegu immigrazioak 20 urte daramatzala gurean. Orduan, ezin dugu esan egunerokotasuna oso gatazkatsua izan denik. Noski, badaude diskriminazioak, batzuk nabarmenak eta beste batzuk sotilagoak, baina estatu osoan egin dena adibide ona izan dela esan genezake orokorrean. Tokian toki adibide onak egon dira: Getxon, Zarautzen, Ordizian, Ermuan, Eibarren immigrazio teknikari berria dago eta nabaritu da... Inplikazio instituzionala dagoenean, teknikariena eta baita gizartearena ere, asko nabaritzen da.



Gabonetako
erosketa gida

#EibarrenBadakagu



**Ludoteka
zorionak**
KIDEN BILKETA

Erkizu, 3
943 54 36 97
688 876 518
ludotekazorionak.com
jugueteriazorionak.com



TXUKUNA

E. Garate, 1
943 82 13 08

- Barruko erropa eta pijamak (ume eta helduak)
- Emakumeen erreduktoreak (aukera handia)
- Artileak



el vestidor

Errebal, 14
607 92 68 86

zorionak!



baglietto

Dekorazioa
Etxerako osagarriak
Pinturak

Errebal, 21
bagliettoeibar.com
943 20 19 22



San Juan, 1
943 20 33 29

- Landareak
- Zentro naturalak eta lehorrak
- Etxerako zerbitzua



GRATZINA

Zuloagatarren, 1
943 82 15 77

Zorionak!





J. Etxeberria, 6
656 73 21 54

- Ume eta gazte moda
- Otik 16 urtera arte



GU BY

zorionak!



Zuloagatarren, 9
943 20 12 40
Birjiñape. 1
943 20 28 33

XARE

Zuloagatarren, 1
943 53 67 64
@ xareibar
www.xareibar.com



Zorionak!

Konplementoak
Zuloagatarren, 7
943 53 93 34

Ditare

Urkizu, 7
943 12 73 21



**HILEKOA, BAGINA-
FLUXUA eta TXIZA-
GALERA ARINAK
XURGATZEKO
KULEROAK**

- Gizon eta emakumeendako barruko arropak
- Pijamak eta batak...

40 urte zuekin

- Berezitasuna taila handietan!

Laguinda

**Zorionak
eta urte
berri on!**



Bidebarrieta, 18
943 20 84 41

#EibarrenBadakagu

F. Calbeton, 22-24 beheha eskuma
📞 603 344 258 - 943 38 61 97



YOKASTA
nails

klaus

Denda
Dekorazioa
Erreformak
Proiektuak

Estaziño, 3
648 035 528

 klauseibar

umea



Errebal, 16 943 20 31 64

Jauregui

San Agustin, 4
943 20 16 47

Menajea - Beira - Opariak



Fermin Calbeton, 5
943 20 10 14

Jostailu-denda

Jostailuak eta
Otik 99 urtera
arteko jokoak



Zorionak!



CAPI

Bidebarrieta, 5 943 201 547
www.capiestetica.es  

UltraLift HIFU  **LIFTING KIRURGIKOAREN BENETAKO alternativa**

 **BETILE LUZAPENAK / LIFTING**

GORPUTZ TRATAMENDU BERRIA

ZELULITISArekin ERAGINKORRA DEN TEKHOLOGIA BAKARRA

 **ZONALDEAK izterrak / ipur-masailak besoak / sabelaldeak**

 Azalaren ELASTIKOTASUNA hobetzen du

San Agustin, 3
943 20 41 81

Kopina



Twins

zorionak eta urte berri on!

Bidebarrieta, 8
943 05 60 82

www.twinseibar.com

f twins_eibar i twinseibar




Bidebarrieta, 28
943 20 79 73

Pastelak, "txikiak", pastak, rellenoak, bonboiak, tartak...

Enkarguak etxera



BENICOBA

etxeko tresnak

Zorionak eta urte berri on!

Juan Gisasola, 12-14
943 20 39 02



#EibarrenBadakagu

Zergatik erosi herrian?



Denok irabazten dugulako

- 1 Herriko ekonomiari laguntzen diogulako
- 2 Eibarrentzako aberastasuna sortzen dugulako
- 3 Gure herria bizirik mantentzen dugulako
- 4 Komunitatea indartzen dugulako



eskatu, erosi euskaraz!



“Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz” Eibarren

Joan den asteaz gozotik martxan da “Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz. Zuk aukeratzeko duzu” Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren kanpaina eta aurrean ere bat egin dute Eibarko Udalak, ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI), Dendarien elkarteak eta Ostalarien elkarteak. Euskararen

erabilera eta bertako merkataritza sustatzeko asmoa duen kanpaina urtarrilaren amaiera arte luzatuko da eta, horren harira, telebista spotak, irratian iragarkiak eta Eibarko kaleetan banderolak ikusi ahal izango dira. Kanpaina honetako protagonistak lehen hitza euskaraz egin dezaketenen merkatariek, ostalariak eta bezeroak dira eta, kanpainaren

bitartez, erosketak Eibarren bertan egitea eta euskaraz egitea bultzatu nahi da.

Kanpainaren arduradunek azaldu dutenez, “gure denda eta tabernetan askotan entzuten dugu “Jarri betikoa”; konfiantzazko harremana dagoela adierazten digu esamolde horrek, gertukoa, betikoa... Horrela, euskara egunerokotasunean erabiltzeko hizkuntza gisa eta konfiantza sortzeko bide gisa aurkezten du kanpainak eta azpimarratzen du aukeratzeko hitzaren arabekoak izango direla zure harremanak. Datorren astean erakuslehoetan edo establezimendu barruan jartzeko kartelak banatuko zaizkie.

Eibarren, ...eta kitto! Euskara elkarteak, Dendarien elkarteak, Ostalarien elkarteak eta EMGIk, Udalaren babesarekin, kanpaina bereziak egin dituzte azken urteotan, bai euskara sustatzeko, bai bertako eta gertuko merkataritza bultzatzeko ere, #EibarrenBadakaguetawww.erosieibarren.eusmoduko ekimenen bitartez.

Ostalaritzan euskararen erabilera errazteko mantelak banatuko ditu ...eta kitto!-k

Euskeraz primeran! kanpaina berriaren barruan, paporezko mantelak banatuko ditu datorren astean ...eta kitto! Euskara Elkarteak otorduak eskaintzen dituzten jatetxe eta tabernetan. Iaz, Udalaren babesarekin, ostalaritzari zuzendutako posterrak argitaratu zituen ...eta kitto!-k eta poster horiek oinarri hartuta egin ditu orain mantelak. Elkartetik adierazi dutenez, “manteletan tabernari eta bezeroen artean erabili ohi diren hainbat esaldi eta berba ageri dira: garagardoa, ogitartekoa, zer hartu nahi duzu?, zenbat da?... Azken batean, ostalaritzan bezeroaren eta tabernariaren arteko euskarazko harremana erraztea du helburu Euskeraz primeran! ekimenaren kanpaina berri honek”.



VII. Gilda Lehiaketa egin da aste honetan Eibarren

Martitzen, eguazten eta egue-
nean egin da ...eta kitto! Euskara
Elkarteak antolatutako Gilda
Lehiaketaren VII. edizioa. Guz-
tira 17 tabernak hartu dute par-
te eta hiru egunetan probatu ditu
epaimahaiak taberna horietako
gildak. Orain saria zeini eman era-
baki beharko dute. Aurten bada
berritasunik sarietan. Izan ere, bat
beharrean sari bi emango ditu epai-
mahaiak: gilda tradizional onenari
bata, eta gilda berritzaileenari bes-
tea. Diplomarekin batera 150€-ko

saria jasoko dute irabazleek. Lehi-
keta atzo amaitu bazen ere, eba-
pena hurrengo astean emango da
jakitera. Epaimahaiaren sariarekin
batera herritarrek erabakitakoa
ere emango da, eta saritu guztien
izenak elkarrekin eman nahi ditu
...eta kitto!-k. Gaur bertan jasoko
dira tabernetatik bezeroentzat ja-
rritako bozketa-ontziak eta, behin
guztiak zenbatuta, orduan jakingo
da zein izan den herritarren ustez
gildarik onena. Horrek ere 150€-
ko saria jasoko du. Botoa eman



duten herritarren artean, berriz, bi
lagunentzat asteburuko egonaldia
zozketatuko da. Irabazleen izenik
jakin ez arren, epaimahaiak zer-
txobait aurreratu digu aurtengo
lehiaketaren mailaren inguruan:
“Erantzun ona izan du lehiaketak
aurten ere. Eta ez hori bakarrik,
gildek maila altua erakutsi dute,
ikusi da kalitatezko lehengaiak era-
bili dituztela”. ...eta kitto! Euskara
Elkarteak eskerrak eman nahi diz-
kie lehiaketan parte hartu duten ta-
bernei, bozketan parte hartu duten
herritarrei eta epaile jardun duten
Ruben, Iosu eta Xabiri. Datozen
egunotan emango ditugu ezagu-
tzera irabazleen izenak.



Txorrorren magiak liluratuta utzi zituen haur eta helduak

Txororro magoak aho bete hortz laga zituen joan den mar-
titzenean Coliseora hurbildu ziren haur zein helduak. Ma-
gia-saio ederra eskaini zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak
familientzat antolatutako ekitaldian. Hasiera batean Tor
magoa zen etortzekoa, baina gaixotu egin zenez, Txorrorrok
hartu zuen haren lekukoa. Jai-egun goiz ederra pasa zuten
ekitaldian izan ziren familiek.



Euskararen Egun betea ospatu dugu aurten

Bideoak gure YouTube kanalean ikusgai



Inoizko egitarau beteenarekin, ekitaldiz lepo iritsi zaigu aurtengo Euskararen Eguna. Goizean zehar margotu zen horma-irudiak zer ezkutatzen zuen jakin genuen lehenengo: Trabesa, ekainaren 22an Eibarren euskararekin lotuta egingo den ekitaldiaren aurrerapena. Etxeko txikientzat jolas-txokoak hartu zituen Untzagako karpak eta handik abiatu zen eguerdian kalejira Ustekabe txarangarekin. Dantza egin eta abestu eta gero herri-bazkaria etorri zen, bingo musikatu eta guzti, eta erromeria-doinu artean agurtu genuen eibartarrok aurtengo Euskararen Eguna.







Nork dio gauak ilunak direla? EKHI BELAR

Krabelin mendi-taldeak 100 mendi ederrenak 200 bihurtu ditu

Eguazten arratsaldean aurkeztu zuten Klub Deportiboko lokaletan bertako mendi-batzordeko Krabelin taldeak azken bederatzi urtetan egindako lan bikainaren azken emaitza. Pandemiaren aurretik 2014an hasi eta 2017ra bitartean egindako 100 Mendi Ederrenak aurkeztu bazituzten, 2018tik 2022ra arte bildutako beste 100 Mendi Ederrenen txanda izan da oraingoan. Lan horretan parte hartu dutenek esan zuten bezala, "hasiera-koak amaitzeko lau urte behar izan bagenituen, pandemiaren sasoiak pixka bat luzatu egin du denboran bigarren zati hau, lau urte eta erdiraino".

Lehen 100 mendietan 30 Nafarroakoak baziren, 20na Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabakoak eta 10 Iparraldekoak, bigarren bilduma honetan beste modu batean jokatu behar izan dute eta 38 izan dira Nafarroakoak, 28 Gipuzkoakoak, 17 Arabakoak, 15 Bizkaikoak eta 5 Iparraldekoak.



Azken bederatzi urteetan egindako mendiak "detailatu" dituzte Krabelinekoek.

Guztira, beraz, Klub Deportiboko web orrian Nafarroako 65 mendiren ezaugarriak, Gipuzkoako 48renak, Arabako 37renak, Bizkaiko 35enak eta Iparraldeko 15enak kontsultatu daitezke.

Egileek diotenez, "proiektuan alde fisikoa zein mentala izan dugu kontuan, azken batean Euskal Herria ezagutzeko gogoia genuen". Krabelingoek, jubilatuta daude-

nez, "nahiko modu librean" jardun dute, baina lan serio eta mardula egiten amaitu dute. Eta ez dute ahaztu "Mikel Larreategik eskaini digun laguntza gurearen emaitza web orrian plasmatu eta jendearentzat erabilgarri lagatzerakoan". Mendi bakoitzaren argazkiak, ibilbidearen deskripzioa, fitxa osotua, mapa eta perfilak eta jendeak ikusteko track-a aurkitu daitezke bertan.

Gabontrailaren zortzigarren edizioa jokatu da abenduaren 24an

Klub Deportiboko mendi-batzordeko Kalamua Korrikalari Taldeak antolatuta, urtero lez Eguberri eguneko Gabontraila jokatu da orain

ere. Probaren zortzigarren edizioak azken urteotako ibilbide berbera izango du eta ez dira faltako, ezta, Kalamua tontorreko argazkia eta



Parlamentuko turroia eta kaba ere. Parte-hartzea doakoa bada ere, antolaketa-lana errazteko izena eman beharra dago (kalamuakorrikalaritaldea@gmail.com). Federatuta egotea komenigarria izateaz gain, antolatzailerik korrika egiteko oinetakoak, frontala, mugikorra, zira, ura eta jateko zerbait eramatea gomendatzen dute.

Gabontraila goizeko 08:00etan hasiko da Deporren aurrean eta amaiera toki berean izango du, 15 kilometro eta erdiko ibilbide erraza osatu ondoren. Goranzko desnibel metatua 757 metrokoa da eta "hiru ordutan ondo amaitu daiteke".

Haizeder Arguiz eta Ane San Martin gimnastak Zaragozako Espainiako Kopan

Ipuru gimnasia erritmikako gimnasta bi horiek atzo hartu zuten parte Zaragozan jokatzeko Espainiako Kopan. Biek ere oinarri mailako banakako lehiaketan jardun dute, Ane San Martinek jubeniletan eta Haizeder Arguizek kadeteetan, Euskadi ordezkatu duen boskotearen kide bezala. Bi gimnasta horiek izan ziren baita, Maialen Apraiz, Indira del Pino eta Arrate Baskaranekin batera, banakako mailatan Ipuru ordezkatzen podiumera igo zirenak ere San Andres Torneoan.

Eibarren jokatuak lehiaketa horretan, gainera, Ipuruako oinarri jubencil taldeak lortu zuen txapela. Ibiza, Madril, Kantabria, Errioxa, Aragoi, Nafarroa eta EAEko 200 gimnasta baino gehiagok hartu

zuten parte San Andres Torneoaren 22. edizioan, guztira 36 klub ordezkatzen. June Araujo, Naroa Alonso, Elene Ramirez, Nahia San Martin eta Elene Lazpitak osatutako boskoteak aurretik izandako lorpenen zergatia erakutsi zuen beste behin (taldekako Espainiako txapelketan 10. geratu zen 130 talderen artean eta, bestetik, Euskalgym irabazi zuten beste 40 talderen aurrean) eta, lan bikaina eskainiz, sari nagusia bereganatu zuen. Bestelako goi postuei dagokienez, Arguizek urrezkoa jaso zuen kadeteetan eta Maialen Apraizek zilarrezkoa maila berean, San Martinek zilarrezkoa irabazi zuen jubeniletan eta, azkenik, Indira del Pino eta Arrate Baskaran bigarren eta hirugarren izan ziren seniorretako azken sail-



Haizeder Arguiz onena izan zen Ipuruan.

kapenean (Del Pino onena izan zen aroarekin eta pilotarekin).

Eibarko Kirol Sariak 27. edizioa biziko dute Gabon Zahar egunean

Aurten ere Eibarko Kirol Sariak banatuko ditu ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Urtero Gabon Zahar egunean egiten den ekitaldian gure

herriko kirol talde guztien lana saritzea nahi izaten da eta espiritu horrek animatzen du XXVII. edizio berri hau ere. Abenduaren 31ko



Amaiur Mayok irabazi zuen Eibarko Kirol Sarietako azken edizioko Sari Berezia.

ekitaldia eguerdiko 12.00etan hasiko da eta, azken zortzi ediziotan bezala, Coliseon egingo da (aurreko edizioak Portalean izan ziren)..

Honakoak dira aurreko 26 ediziotan Sari Berezia jaso zutenak: Marcial del Amo, Manu Agirre, Txus Alzaga, Iñaki Zuazo, Juan Luis Mardaras, Juanito Gisasola "Txoko", Jose Luis Akarregi eta Miguel Gallastegi, Pako Larrañaga "Pakol", Iñaki Bolinaga, Pedro Egiguren "Ixxua", Jose Aranberri, Patxi Usobiaga, Pedro Agirregomezkorta "Petrus", Miriam Merino, Ramon Telleria, Inma Urkiola, Miguel Diego, Jaime Barriuso, Asier Cuevas, Jon Errasti, Tania Nagornaia, Markel Alberdi, Odei Jainaga, Davide Cerchi, Markel Susaeta eta Amaiur Mayo (iazko irabazlea).

2023ko Itzulia Eibarren amaituko da apirilaren 8an

OCETA elkarteak antolatzen duen lasterketa apirilaren 3tik 8ra jokatuko da, astelehenetik zapatara, eta datorren urteko Itzulia Basque Countryaren 62. edizioa Gasteizen hasi eta Eibarren amaituko da. Zapatuan jokatuko den azken etapa hori Eibarren hasi eta amaituko da. Asteleheneko lehenengo etapa Araban jokatuko da, Gasteizen hasi eta Bastidan amaitzeko. Martitzeneko bigarren etapa Nafarroako errepideetan jokatuko da, Biana eta Leitza lotzeko. Eguazteneko hirugarren etapak Gipuzkoa bihurtuko du protagonista, Erreterian hasi eta Villabonan amaitzeko. Eguen



Munduko onenak izango dira Eibarren. Argazkian, Roglic eta Pogacar aurreko batean.

eta barixakuko etapak, bestalde, Bizkaian jokatuko dira: apirilaren 6koak Santurtzin izango du hasiera eta amaiera eta hurrengo egunekoak, 7koak, Zornotza izango du abiapuntu eta helmuga. Azkenik,

esan bezala, azken etapak Eibar bihurtuko du beste behin munduko txirindularitza profesionalaren gune. Etapei buruzko xehetasun guztiak urte hasieran jakinaraziko dira prentsaurreko batean.

Eibar Rugbyko nagusienek amaitu dute denboraldiko lehen fasea

Euskal Ligan jokatzen duen gizonzkoen talde seniorrak, gainera, ezinhobeto amaitu du lehen zati hori. Bost garaipen jarraian lortu eta gero, 27 punturekin A Multzoko lider postuan amaitu du. Hasiera zaila izan zuen arren, maila berrira egokitzeko lan nahikoarekin, Eibar-ko taldeak eboluzionatu eta aurrera egitea lortu du, azken partiduetan jokalariei nabaritu zaien konfiantza lortuz. Bide horretatik, galdutako mailara igotzea dute helburu.



Eta Ohorezko Mailan jokatzen duen emakumezkoen taldeak ere ezin hobeto amaitu du lehen itzulia, bi garaipen jarraian lortuz eta jaitsierarako arriskua duen sailkapeneko azken postutik irtenda. Emakumezkoen taldea ere eboluzionatzen joan da eta pixkanaka aurrera egin du taulan. Asteburu honetan hasiko dira bigarren fasea jokatzen, Majadahondaren aurka, eta aurretik dituzte ligako azken zazpi partiduak.

Eibarko Txakurkrosa Arraten jokatuko da urtarrilaren 15ean



Iaz Amañan jokatu bazen ere, oraingoan Eibarko Txakurkrosa Arratera itzuliko da berriro, lehenengo edizioan jokatu zen toki berera. Amañakoan, herrira ekartzean, modalitatea jendeari gerturatzea lortu bazuten ere, oraingoan bike-

joring lasterketa ere jokoan izango denez, "bizikletek behar duten pistak errazago aurkitzen dira Arrate inguruan", antolatzaileen esanetan. Bitartean, gure herriko ordezkariak maila ematen jarraitzen dute Eus- kadiko Txakurkros Ligan.



Kaleetan Kantuz abesbatza Barakaldoko Habanera Txapelketan arituko da

Datorren martitzenean, abenduaren 20an, Kaleetan Kantuz Eibarko koruko kideak Barakaldora joango dira, han egingo den Habanera Txapelketan parte hartuz. Barakaldoko Gitarraren Lagunak-ek antolatutako lehiaketa 19:00etan hasiko da, Barakaldo Antzokian, eta eibartarrekin batera beste bi talde arituko dira kantuan: Valle de Aras abesbatza (Kantabria) eta Jus La Rotxa rondalla (Iruñea). Sarrerak 10 euro balio du. Kaleetan Kantuz taldea Ikasten elkartean baitan sortutako abesbatza da eta datorren asteko topaketara 44 lagun joango dira. Parte-hartzaileen artean sari nagusia zeini eman publikoak aukeratu du eta bigarren eta hirugarrenentzat ere txapelak banatuko dira. Amaieran “Los amigos así” eta “Bengolea” abestuko dute denek elkarrekin.



Eibarko eraikinen maketa erakusketa berria Museoan

“Artea eta arkitektura Eibarren II” erakusketa inauguratu zuten atzo Armagintzaren Museoan. Manuel Zabalak egin dituen Eibarko eraikinen maketen bigarren erakusketa honetan eraikin historiko batzuk ikus daitezke, dagoeneko desagertuta dauden beste batzuekin batera. Otsailaren 19ra arte egongo da ikus-terko moduan eta sarrera doan da.



Deportiboko argazkilarien lanak Portalean ikusgai

Urtarrilaren 8ra arte ikus daiteke “Auzoko dendak”, Klub Deportiboko Argazki Taldearen erakusketa kolektiboa, Portalean. Bakarne Elejalde, Einer Rodríguez, Enrique Lorenzo, Estrella Tardío, Federico Cuenca, Fernando Retolaza, Fernando Solana, Iraia Agirre, Jose Ignacio de Castro, Jose Vila, Jose Luis Irigoien, Jose Valderrey, Juan Antonio Palacios, Markel Ruiz, Silvia Tardío, Mikel Urionaguena, Oskar Baglietto, Pedro Arriola eta Virginia Arakistain argazkilarien lanak martitzenetik domekara ikus daitezke, 18:30etik 20:30era.

Nerea Gorritiren lehen singlea

Nerea Gorritik artista handia dela erakutsi du beste behin. Eibartarrak ‘Sunday morning’ kaleratu du, bakar-lari bezala argitaratzen duen lehen lana. Ondo babestuta



egon da abestiaren sorkuntzan, Iker Lauroba ibili baita produkzio lanetan, Iñaki Salvador pianoan, Joan Codina kontrabaxuan eta Hilario Rodeiro baterian. Azala, gainera, beste eibartar batek egin du, Mikel Gaugerrek.

“Magma Mia” umorezko bakarrizketa feminista

Datorren asteko barixakuan (abenduak 23) “Magma Mia” umorezko bakarrizketa eskainiko du Beatriz Egizabalek, 18:00etan Topalekuan. Arrate Kultur Elkartek eta Naluak antolatu dute saioa, euskaraz izango da eta nahi duenarentzat irekia (sarrerarik ez da kobratuko, borondatea). Antolatzaileren berbetan, “bakarrizketa feminista da, militantziaz asko eta umoretik are gehiago duena”.



Bihar eguerdian aurkeztuko dute Viteri sendagileei buruzko liburua udaletxean

“Viteritarrak / Los Viteri de Eibar” Antxon Narbaizak idatzitako liburua aurkeztuko dute bihar eguerdian, 12:00etan udaletxean. Lanak Isaac, Javier eta Alberto Saénz de Viteri medikuen biografiak biltzen ditu eta, horri buruz berba egiteko, Barne Medikuntzaren arloan ospe handieneko sendagileen artean dagoen Ziriako Agirre Errasti etorriko da. Ekitaldian Txopitea eta Pakea saria emango dio Udalak, medikuntzan egin duen lan handia eskertu eta aitortzeko.



Migratioari buruzko bakarrizketa egingo da gaur

Gaur migratzailearen nazioarteko eguna dela eta, “Historias de arena y sal” monologoa antzeztuko da 18:30ean Portalean. Udaleko Kultura Aniztasunaren eta Immigratioaren Unitateak antolatu du: “Gizateriaren historian zehar, migratioa adierazpen ausarta izan da, norbanakoen nahigabea gainditu eta bizitza hobea bilatzeko ausardia. Horixe erakutsiko digu saioak, bizitza hobearen bila dabiltzan gazteen istorioen collage bat, Amazigh kulturaren anekdota eta ipuin tradizionalekin batera”.

Poesia errezitala egingo dute gaur Untzagako jubilatuetan

Gaur 19:00etan hasiko da “Poesía...eres tú” Eibarko poesia taldearen errezitala Untzagako jubilatuetan. Parte hartuko duten poetak hauek dira: Araceli Bono, Ernesto Barrutia, M^a Eugenia Cámara, Feix Elkoroiribe, Rafa Herce, Elena Lopez, Elisa Lopez, M^a Jesus Murillo, Maria Perez, M^a Jesus Sanz eta Manu Cancio.

Musika Eskolako kontzertuak



Eibarko Musika Eskolako hainbat taldek kontzertu korala eskainiko dute gaur, 20:00etan, Karmengo Amaren elizan. Sostoa abesbatzak, Eibarko Koro Gazteak,

Juan Bautista Gisasola Koruak eta biolin taldeak hartuko dute parte gaurko saioan. Horrez gain, Musika Eskolakoek Gabonetako kontzertua eskainiko dute eguazten eta eguenean, 18:30ean, Coliseo antzokian.

Jenni Alvaradoren artelanak

Gaur arratsaldean zabalduko dute Jenni Alvarado artistaren “Keinu, objektu, trazu” izeneko erakusketa Portalean. Alvarado Arte Ederretan lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean (2006) eta, ordutik, bere arte-proiektuak marrazkiaren eta pinturaren ingurukoak izan dira. Hala ere, azken urteetan ikus-entzunezko formatua ere sorkuntza prozesuen parte da. Azken bi urteetan egindako lanak ikusi ahal izango dira, urtarrilaren 15era arte.




Pagatxaren bideo-foruma




Pagatxaren eskutik, bideo-foruma egingo da astelehenean Portaleko areto nagusian, 18:30ean hasita. Patricia Perex Cotok dinamizatuko duen saioan Rigoberta Menchú izango dute hizpide. Sarrera librea da.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

5	8				
2	1		8	9	4
6		5			
	6		9		
4	5		1	3	6
		6			5
			1		9
	3	4	7		5
				6	7



soluzioa



soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA


6		3	2	8	5
		9			
2	4	5	1		
	7				
9	8	4	2	7	5
					8
		6	9	3	1
			5		
6	2	7	4		8

S U D O K U



**AURKITU
10
EZBERDINTASUNAK**

**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A**



Eibarren sortutako musika doinu ezberdinak izango ditugu Errebalen


Eibarko Musika Gazte Elkarteko zenbait taldek ikuskizun berezia eskainiko dute bihar, 18:00etatik aurrera, Errebal Plazan. Musikarientzat aukera ederra izango da euren musika herrikideen aurrean erakusteko eta, bestetik, publikoak Eibarren dagoen sormen mailaz gozatzeko aukera izango du.

Biharko jaialdian bost sortzailek hartuko dute parte: 'Ekinocio', 'We Are Apes, Hello!', 'Kvalvika', 'Judas Argarate' eta 'Beato'. Izen ezagunak dira askorentzat eta euren musikaz gozatzeko parada izan dugu hainbatean, baina berezia izango da talde guztiak arratsalde-gau batean elkarrekin ikusteko aukera.

'Ekinocio' da zerrendako lehena eta elkarrekin jotzen denbora gehien daraman taldea. Rock talde eibartarrak oihartzun handia izan zuen bidea hasi zuenean eta kontzertu gogoangarriak eskaini zituen han eta hemen. Urteak aurrera joan ahala gorabeherak izan ditu, baina gaur egunera arte musikaz gozatzen eta gozarazten jarraitu du.

'We Are Apes, Hello!' martxa betean eta momentu gozoan dagoen taldea da. Maiatzean hirugarren EPA kaleratu ondoren ('Something happier'), Mikel Pizarro eibartarrak eta Andoni Conde ermuarrak osatzen duten taldea gelditu barik dabil azken hilabeteotan kontzertuak eskaintzen. Bi kide dituen taldea izanik, oso doinu indartsua eskaintzen dute eta erritmo ezberdinak eskaintzen dituzte 90. eta 2000. hamarkadetako punk-rocka oinarri hartuta.

David Karba 'Kvalvika' izan behar zen eguneko hirugarren protagonista, baina bere kontzertua bertan behera laga behar izan dute. Sare sozialen igorritako mezua esan duenez, "arrazoi pertsonalengatik, ordutegiarengatik eta baimenengatik, zapatuan ez dut kontzerturik emango". Dena dela, Karbak adierazi du publikoan egongo dela eta ahal den neurrian ikusizunaren antolakuntzan lagunduko duela. "Kontzertu



E.M.G.E. jaialdian parte hartu duten taldeak

hau baldintza egokiago eta osasuntsuagoetan eskainiko dut", gehitzen du.

'Judas Argarate' taldea Markel Iraolak, Joseba Goñik, Ekaitz Vegasek eta Hodei Otegik osatzen dute. Laukoteak rock talde ezagunen bertsioak egiten ditu; ez hori bakarrik, COVID-19aren pandemiaren ondorioz ezarritako etxealdian Reincidentes taldeko Fernando Madinarekin batera 'Un día más' abestia kantatu baitzuten. Errebal Plazan bilduko den publikoa astinduko du 'Judas Argarate'-k.

E.M.G.E. jaialdiari amaiera emateko, Gorka Beato jarriko da plateren atzean musika jartzen. Oso gaztetatik han eta hemengo jai, jaialdi eta ospakizunak giroten ibili da Beato, minimal, elektro, deep eta techno estiloak landuz, Depeche Mode, The Pixies eta Pet Shop Boys taldeen eraginpean. Eibartarrak doinu dantzagarriak eskaintzen ditu, estilo ezberdinak uzartuta giro berezia sortuz.

Musikaz bere osotasunean gozatzeko aukera bikaina, beraz, biharkoa, eta doan gainera.



Maria Elcoro-Irribé Osa
2022/12/01

“Maite ditugunen argia ez da sekula emetatuko”
ASKO MAITE ZAITUGU - ETXEKOAK -

MILA ESKER hilbeilan, hileta mezan eta gure saminean lagundu diguzuen guztiori.

IRTEERA MEZA hilaren 16an, domeka, 12:00etan, Karmengo Amaren Eliz Parrokian



Josean Alonso Gonzalez
2022/12/05



ZURE LAGUNAK

Aupa EIBAR!!!



Enrique Añibarro Zubizarreta

2. URTEURRENA
2020/12/04


“Beti izango zaitugu gogoan”

- ETXEKOAK -



Antonio Alberdi Atxa

4. URTEURRENA
2018/12/08



“Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza”

- ETXEKOAK -



FUNEUSKADI
Grupua: Funeuska



TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak



TANATORIO KRESBATARIO EGODIARR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdeospina, 16</p>
---	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



688 62 76 89

ESKERTZAK ETA URTEURRENAK

943 20 09 18

Urkizu, 11 - 48940 -
publizitatea@etakitto.eus

Abenduak 16 / 22

BARIXAKUA 16

TONBOLA SOLIDARIOA

Eibar-Ermuko Gazteen Gurutze Gorriaren alde. Untzaga.

EIBART

11:00/14:00 eta 17:00/20:30 Gabonetako 18. Artisautza Azoka. Untzaga.

LIBURU AZOKA

17:30/20:00 Eibar-Sahara Elkartearen bigarren eskuko liburuak. Untzaga.

CIMASUB

18:00 Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloko lanen proiektzioak. Doan. Coliseo.

BAKARRIZKETA

18:30 "Historias de arena y sal" monologo antzeztua. Portalea (areto nagusia).

POESIA

19:00 "Poesía... eres tú" taldearen errezitala. Untzagako jubilatuta etxea.

MUSIKA

20:00 J.B. Gisasola Musika Eskolako kontzertua. Sostoa abesbatza, Eibarko Koro Gaztea. J.B. Gisasola Korua, biolin taldea. Karmengo Amaren eliza.

ZAPATUA 17

TONBOLA SOLIDARIOA

Eibar-Ermuko Gazteen Gurutze Gorriaren alde. Untzaga.

GABONETAKO AZOKA

10:00/14:00 Gabonetako bigarren eskuko azoka. Umeendako tailerrak (**11:30/14:00**). Errebal Plazia.

TRUKE ETA DOAKO AZOKA

10:30/14:00 Nalua Eibarko talde feministaren eskutik. Untzaga.

ARTISAU AZOKA

10:30/15:00 Artisau Azoka. Ipuruako Merkatu Plaza.

EIBART

11:00/14:00 eta 17:00/20:30 Gabonetako 18. Artisautza Azoka. Untzaga.

LIBURU AZOKA

11:30/20:00 Eibar-Sahara Elkartearen bigarren eskuko liburuak. Untzaga.

LIBURU AURKEZPENA

12:00 "Viteritarrak / Los Viteri de Eibar", Antxon Narbaizaren liburuaren aurkezpena. Ciriaco Agirre Errasti medikuari Txopitea eta Pakea saria ematea. Udaletxea.

CIMASUB

12:00 Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa. Txikiziklo, familiei zuzendutako saioa. Doan. Coliseo.

SOLASALDIA

12:30 Mertxe Aizpurua. Errebal Plazia (bilera aretoa).

IKUSKIZUNA

17:00 "Gabonetako miraria", Ukrainarekin. Doan. Uni Eibar-Ermua.

EMGE FEST 2022

18:00 Beato, Kvalvika, We are apes, hello!, Ekinozio eta Judas Argarate, Legarreko lokaletako taldeen kontzertua. Errebal Plazia.

DOMEKA 18

TONBOLA SOLIDARIOA

Eibar-Ermuko Gazteen Gurutze Gorriaren alde. Untzaga.

ARTISAU AZOKA

10:30/15:00 Artisau Azoka. Ipuruako Merkatu Plaza.

EIBART

11:00/14:00 eta 17:00/20:30 Gabonetako 18. Artisautza Azoka. Untzaga.

LIBURU AZOKA

11:30/14:30 Eibar-Sahara Elkartearen bigarren eskuko liburuak. Untzaga.

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren Gabonetako kontzertua. Coliseo.

ASTELEHENA 19

EIBART

11:00/14:00 eta 17:00/20:30 Gabonetako 18. Artisautza Azoka. Untzaga.

MIGRAZIOA GIZARTERATZEN

18:00/20:00 Zurrumurruen aurkako prestakuntza saioa. "Migrazio-prozesuak: zurrumurruak, pertzepzioak eta jarrerak", Xabier Aierdi EHU-ko Soziologian Doktoarearen eskutik. Portalea (ikastaro gela).

BIDEO-FORUMA

18:30 Emakumeen Istorioak: Rigoberta Menchú. Dinamizatzailea: Patricia Perex Coto. Sarrera libre. Portalea (areto nagusia).

MARTITZENA 20

EIBART

11:00/14:00 eta 17:00/20:30 Gabonetako 18. Artisautza Azoka. Untzaga.

LITERATURA

19:00 Idazlearekin Harixa Emoten: Oier Gillanen "Mr. Señora". Portalea (3. Batzartokia).

EGUAZTENA 21

EIBART

11:00/14:00 eta 17:00/20:30 Gabonetako 18. Artisautza Azoka. Untzaga.

LIBURU AURKEZPENA

17:00 Eider Perez. Adarabar (Eulogio Garate, 3-6 behea).

MUSIKA

18:30 J.B. Gisasola Musika Eskolako Gabonetako kontzertua. Coliseo.

EGUENA 22

EIBART

11:00/14:00 eta 17:00/20:30 Gabonetako 18. Artisautza Azoka. Untzaga.

ODOL EMATEA

16:30/20:30 Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

MUSIKA

18:30 J.B. Gisasola Musika Eskolako Gabonetako kontzertua. Coliseo.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **17an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **18an:** 17:00, 20:00
- **19an:** 20:30

“Kepa Junkera. Berpiztu”
Zuzendaria: Fermin Aio



DOKUMENTALA. Kepa Junkeraren inguruko lan biografikoa, bere sormenak eta gaixotasuna kontatzen dituena.

2 ARETOA

- **17an:** 17:00, 22:00
- **18an:** 16:30, 20:00
- **19an:** 20:30

“2D Avatar. Sentido del agua”
Zuzendaria: James Cameron



FANTASTIKOA. Zientzia fikzioa ata abenturak nahasten ditu, extralurtarren istorioekin. Aurreko baten sekuela. 2D-n.

ANTZOKIA

- **17an:** 17:00, 22:00
- **18an:** 16:30, 20:00
- **19an:** 20:30

“3D Avatar. Sentido del agua”
Zuzendaria: James Cameron



FANTASTIKOA. Zientzia fikzioa ata abenturak nahasten ditu, extralurtarren istorioekin. Aurreko baten sekuela. 3D-n.

ERAKUSKETAK

Abenduaren 18ra arte:

- JUAN SAN MARTINen omenezkoa (**ESIAIKO LIBURUTEGIA**)
- CIMASUB-era aurkeztutako argazki onenak (**TOPALEKUA**)
- Deportiboko URPEKARITZAKoen argazkiak (**KLUB DEPORTIBOIA**)

Urtarrilaren 8ra arte:

“AUZOKO DENDAK”, Klub Deportiboko Argazki Taldea (**PORTALEA**)

Urtarrilaren 15era arte:

“Keinu, objektu, trazu”, JENNI ALVARADOnen margoak (**PORTALEA**)

Otsailaren 19ra arte:

“ARTEA ETA ARKITEKTURA EIBARREN II”, Manuel Zabalaren maketak (**ARMAGINTZAREN MUSEOA**)

Martxoaren 19ra arte:

“FILMETAKO ARMAK. Museoaren bilduma zinemari” (**MUSEOA**)

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **LUKA!** Hillaren 15ian 8 urte bete zenduazena-eta. Asteburuan topera ospatu dogu. Patxo potolua famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NAHIA,** etxekuen partez!! Patxo haundi bat, 4 urte bete dozuzen honakuan!!



Zorionak, **PAUL,** hillaren 6xan 7 urte bete zenduazena-eta! Jarraitu holan, mutil haundi! Besarkada haundi bat famelixakuen partez.



Zorionak, **MALEN!!** Martitzenian 6 urte egin zenduazena-eta. Segi holan, *printze!!* Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **SARA!** 3 urtetxo egin dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **MANEX!** Martitzenian 2 urte bete dozuz-eta! Musu haundi bat famelixakuen eta laguntxuen partez!



Zorionak, **ANE!!** Atzo 12 urte!! Ederto ospatu zure urtebetetzia famelixa eta lagun giroan. Patxo asko etxeko guztien partez.



Zorionak, **JON!!!** Hillaren 7xan 4 urte bete zenduazelako. Patxo potolua etxekuen eta, batez be, anaixa Danel eta lehengusu Unairen partez.



Zorionak, **MIKEL!!!** Hillaren 4an 6 urtetxo bete zenduazena-eta. Ondo pasau genduan famelixa eta lagunekin! Patxo haundixa danon partez!



Zorionak, **MAYA!** Eguzkirako itzulera berri honetan zure amets guztiak egi bihurtzia opa de-tsugu. Infiniturairño maitte zaittugu. Aitta, ama eta Izar-en partez.



Zorionak, **HEGO!** Martitzenian 6 urte bete zenduazena-eta, mutil haundi! Musu potolo bat Markel eta etxekuen partez!



Zorionak, **MAIDER,** martitzenian 5 urte bete zenduazena-eta. Musu eta besarkada haundixak etxekuen eta, batez be, Jonen partez.



Zorionak, gure **JULETXO.** Astelehenian 7 urte bete zenduanez, patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MARTIN,** mutil haundi. Eguaztenian 6 urte bete zenduazena-eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Nikoleren partez.



Zorionak, **URKO,** hillaren 11n 7 urte egin zenduazena-eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Mikelen partez.



Zorionak, **ELENE eta LAIA!** 12 eta 11 urte haundi bete barri dozuez. Segi amesten, jolasten eta pasiñuaz bizitzen. Maitte zaittuegu. Patxo haundixa izeba Aneren partez!



Zorionak, **DONATA** (gaur urtiak egiten dozuz) eta **NEREA** (19xan beteko dozuz). Musu haundi bana famelixa guztiaren partez.



Iragarki laburrak



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Pisia alokagai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora begira eta oso argitsua. Guztiz berriztuta. Ilogailuarekin. Bikote baten-dako aproposa. 637587823.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garajea salgai Bittor Sarasqueta kalean. Itxita. 639728126.

3.2. Errentan

- Lokala alokagai erdigunetik gertu. Negozio zein gazteentzat (baimen guztiekin), 634430647.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta ospitalean ere. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 722408667.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 633173215.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. 641421135.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta umeak eskolara eramateko. 688779828.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 633694917.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, sukaldean laguntzeko eta umeak edo nagusiak zaintzeko (ikastaroa eginda). 643427770.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624108612.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624356807.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. Esperientzia sukalde-laguntzaile jardunean. 643508332.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta zaintza lanetarako. Orduka. 643508300.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 612583671.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 632029884.
- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta lorategian jarduteko. Gidatzeko karnetarekin. 624127147.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan taberna edo jatetxeetan lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. 632419944.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 687114707.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 637222318.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. 624869718.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. 631750397.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 631341616.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624579899.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ikastaroarekin) eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientziarekin. 632415374.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 610067042.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da. 6888667169.

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinu klase partikularrak ematen dituen baten bila nabil. 616479840.

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

20€
KAXA
MAGAZAK 10€
Taldeak bakarra

**GABON
ESKULANA**

ABENDUA
27 **6-9** urte
29 **3-5** urte
10:30-12:00

Oporretan

etxeko txikientzat

plan dibertigarriak

689 116 104

KAXA

20€
KAXA
MAGAZAK 10€
Taldeak bakarra

MUGISORMEN

ABENDUA
27 **3-5** urte
29 **6-9** urte
OSTARRILA
3 **3-9** urte
10:30-12:00

info@kaxa.eus

Datorren astetik aurrera...

Edariak eta kafeak

Buskeraz
primeran!

1 KAT	2 KI	3 HONI	4 LAE	5 DUHT	6 SEI	7 ZAZPI
BIZIA	ZURUA	GORRIA	URU	GARRAZIDUA		
MOITZA	LAGARDUA	TELARUNA	ZERBIA	KAFA	HARAN	PIZZA <small>Tortilla de patatas</small>
KAKOTEA	OLIBUA	TUBURZUA	PERRETZIBARRA	BUTILATZIBARRA	LALDA	GARRAZIDUA
GALTA	GALTA	TOMATEA	TORTILLA	GARRA	NORMILARRA	ETXIA
ZURUA	BIZIA	ERABIA	KAFERUA	BERRAZIBARRA	KOTZIBARRA	TUBURZUA
ZURUA	BIZIA	ERABIA	KAFERUA	BERRAZIBARRA	KOTZIBARRA	TUBURZUA

Ketxe Baina
Agur! Agur!
Egun on! Bona tarde!
Agur! Buena tarde!
Agur! Buena tarde!
Agur! Buena tarde!
Agur! Buena tarde!
Agur! Buena tarde!

Kate baina, neskerak
Ez uste, por favor!
Ni katekin, neskerak
Ez uste, por favor, por favor!
Ni berriz eta zuri bati, neskerak
Ez uste, por favor, por favor!
Ez uste, por favor, por favor!
Ez uste, por favor, por favor!
Ez uste, por favor, por favor!
Ez uste, por favor, por favor!

ETXIA TRANSMITZIO ZERBITZUA

eta kitto!

EIBAR^{ko}

**JATE
TXE**

eta

**TA
BER
NE
TAN**

Xoparitu eibar

Txartela
DATORREN
ASTEAN
ESKURAGARRI



erosieibarren.eus



DENDAK, ZERBITZUAK, OSTALARITZA ETA AISIALDIA
EIBARKO 170 ESTABLEZIMENDU BAINO GEHIAGO

BULTZATU HIRIA

Txartelaren zenbatekoa hainbat zatitan banatu daiteke.